

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA

ORDAINKETA SISTEMAREN EZAUGARRIAK.

Kanpo Kontseilariak.

Kutxabank SA erakundearen Administrazio Kontseiluaren Araudiaren 10. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kideek ordainsari bat jasoko dute beren funtzioak burutzeagatik. Ordainsari hori Estatutu Sozialetan eta une bakoitzean aplikatu daitezkeen araudian aurreikusitako araudira egokituko da.

Estatutu Sozialen 29. artikuluan, 1. Atala, ezarri da Administrazio Kontseiluko kideek asistentzia-dieta gisako kopuru bat eta beste kopuru finko bat jasoko dituztela. Orokorrean, Akziodunen Batzorde Nagusiak zehaztuko ditu. Administrazio Kontseiluak eskumena izango du Akziodunen Batzorde Nagusiak zehaztutakoaren arabera kontseilari bakoitzari (funtzio exekutiboak dituztenak ere) dagokion kopuru zehatza finkatzeko. Kontuan hartuko dira betetzen dituzten karguak, dedikazioa, eta organo sozialen sailotara joatea, baita ordainketaren maiztasuna ere.

2019ko ekitaldian honako osagaiak ezarri ziren kontseilari karguaren ordainsarirako:

Dieta Finkoa:

Urteko sortzapentzat hartzen da, beraz, kontseilariak ordeztetokotan, hainbanaketa bat egiten da ordeztuari eta ordezkoari dagozkien hilabeteen inguruan.

Ordainketa 12 hilerokotan egingo da. Ordezkapen kasuan, ez zaizkio ordeztuari ordainduko bere ordezkapenetik urte amaierara arteko hilerokoak. Bestalde, ordezkoak bere izendapenaren ostean dagozkion hilerokoak soilik jasoko ditu, urte amaierara arte.

Administrazio Kontseiluko ordezkari batzordeetako Presidenteek urteko zenbateko finkoaren gaineko % 5 jasoko dute, Batzorde Exekutiboarenak izan ezik. Bigarren Presidenteordeak eta Kontseilari Koordinatzaileak % 10 gehiago jasoko du, kargu horri dagokion erantzukizunagatik. Gainera, aurretik aipatutako ordezkari batzorde bateko Presidente eta Kontseilari Koordinatzaile kargua daukaten kontseilariak aurretik aipatutako bi portzentaje gehigarriak metatuko ditu.

Asistentzia dieta:

Dieten ordainketa hileroko egingo da, Kontseilari bakoitza joaten den ordezkari batzorde edota Kontseiluko bileren arabera.

Kontseilari Exekutiboak.

Kutxabank Taldearen Ordainsari Politika Esparruaren arabera, kontseilari exekutiboen ordainsaria Administrazio Kontseiluak finkatuko du. Edonola ere, Akziodunen Batzorde Nagusiak finkatutako gehieneko zenbatekoa errespetatuko da.

Izaera exekutiboa duten Administrazio Kontseiluko kideentzako ezarritako ordainsari-eredua

ezartzeko, kontuan hartuko da Bankuaren testuingurua, eta Erakundearen beraren berezitasunak, gobernu organoen barruko funtzioak kontuan hartuz. 2019an, KUTXABANKEN funtzio exekutiboak zituzten 3 kontseilari zeuden: Presidente, 1. Presidenteordea eta Kontseilari Ordezkaria. Hala ere, 1. Presidenteordeak kargua utzi zuen 2019ko urriaren 29an, eta ekitaldia bukatu arte ez zen funtzio exekutiboak zituen kontseilari gehiagorik izendatu.

Kargu horietarako, bereziki, administrazio funtzio egonkorak dituztenak eta goi mailako zuzendaritza funtzioak betetzen dituztenak, erantzukizun eta dedikazio bereziari dagokionez, Taldearen politika orokorrarekin bat datorren politika bat ezarri da, sektorearen barruko praktika onenak erreferentzia hartuz.

Ordainsari aldagarria

Presidente Exekutiboaren eta Kontseilari Ordezkariaren ordainsarietako zati finkoa eta zati aldagarria dituzte, azken hori zehazki ulertuta, hau da, ordainsari aldagarria eta araudiaren arabera hala ulertutako beste kontzeptu batzuk barne hartuz (aurreikuspen-sistematarako ekarpenen parte izanik). Osagai aldagarriaren % 100 honakoen mende geratzen da, kontratu bidez: klausula korporatiboak eta araudi-esparrua, geroratzeari dagokionez, zati baten likidazioa akzioen ordezkotresna moduan, eta aurrerago zehaztutako den expost arriskuaren araberrako klausulak. 1. Presidenteordearen ordainketa finkoa da, osorik.

Bankuko Administrazio Kontseiluko kide batzuek ekarpen definituko lan osteko prestazioak jasotzeko eskubidea dute, beren kontseilari izaeragatik, eta kasuren batean eskubideak dituzte ekarpen definituko pentsioengatik, Erakundearen lanpostuak bete zituzten ekitaldietan sortuak. Konpromiso horiek esternalizatuta daude aseguru-polizien bidez, taldetik kanpoko gizarte aurreikuspeneko erakundeekin eta aseguru-etxeekin.

2019an kontseilari exekutibo izan diren hiru pertsonetatik batek ere ez zuen jaso dietarik erakunde nagusiaren gobernu organoetako bileretara joateagatik, aurreko atalean funtzio exekutiborik gabeko kontseilarietarako azaldutakoetatik. Bestalde, erakunde nagusiaren Administrazio Kontseiluko kideek ez zuten zenbatekorik sortu 2019an, Taldeko sozietateen gobernu organoen barruko karguak betetzeagatik.

Goi mailako Zuzendaritza eta identifikatutako gainera langileak.

Ordainsari finkoa:

Lanpostu funtzionalak mailaka sailkatzen dira, erakundearen barruan duten erantzukizun eta ekarpena mailaren arabera, eta maila bakoitzerako merkatuko batez besteko erreferentziak hartzen dira. Egungo ekarpenak merkatuko batez bestekoarekiko daukan posizio erlatiboaren arabera, ordainsariaren urteroko eguneratzea mailakatzen da, modu eskalonatuan. Horrek merkatuko erreferentziara gerturatzen joateko aukera ematen du. Horrela izanik, ordainsaria erakundearen barruan betetako funtzioaren araberrakoa da, beraz, funtzioa utziz gero,

funtzioa burutu bitartean programaren barruan finkatutako gehikuntza galdu daiteke.

Ordainketa aldagarria.

2019ko ordainsari aldagarria ordainsari finkorako egindako azterketaren emaitza berdinak kontuan izanda zehazten da. Kasu honetan, portzentaje aldagarriak maila horretarako ordainsari finkoaren batezbestekoaren gainean kalkulatzen da; horrela, adierazgarriagoak izango dira azpitik daudenentzat eta ez hainbeste gaineratik daudenentzat.

Barne-kontrolerako aplikatu daitezkeen ordainsari aldagarriko sistemek elementu bereizgarriak planteatzen dituzte eredu orokorraren aurrean. Helburua da funtzioaren independentzia babestea, bere kontrol-lanaren xede diren gainerako arloekiko.

Aldagarriaren geroratzeak

Geroratze-klausula honetan datza: aplika daitezkeen egoeretan, sortzapenaren hurrengo ekitaldian urteko ordainsari aldagarriaren % 60 soilik likidatzea, gainerako % 40aren kobrantza hurrengo hiru urteetarako utziz; heren bat urtean. Zati geroratuaren liberazioa, behin atxikipen-aldiak bukatuta, ex-post arrisku edo balorazio baten mende egongo da, eta murriztua edota ezeztatua ere gera liteke, Erakundearen egoera kontuan izanda ez balitz iraunkorra izango, ez bada justifikatzen Erakundearen beraren, negozio unitatearen edo zuzendaritzaren emaitzen arabera.

Aldagarria kapital tresnetan likidatzea

Horren inguruko araudi-esparruaren arabera, geroratze klausulaz gain, ordainsari politikaren zati moduan eta aurretik aipatutako materialtasun eta proportzionaltasun printzipioen mende, aplika daitezkeen egoeretan egiten da esku-dirutako ordainsari aldakorraren % 50aren likidazioa eta beste % 50a, gutxienez, kapital-tresnetan (azken horien atxikipen urte baten mende geratzen dira).

KUTXABANK SA erakundearen eta taldeko erakunde batzuen sozietate egitura espezifikoren arabera, gaur egun Erakundearen balioa adierazten duten tresna eta akzioak ordezkatzeko dituzten tresnen bide egituratzen da. Azken likidazioko zenbatekoa aldeko ex-post ebaluazio baten mende geratzen da, eta murriztu edota ezeztatu ere egin daiteke, ordainsari geroratuaren likidaziorako aplikatutako irizpide berdinei jarraituz.

Arriskuaren inguruko expost doikuntza, malus eta clawback klausulak.

Aurreko sistemei aplikatzen zaien materialtasun eta proportzionaltasun irizpideari jarraituz, klausula bien oinarria da zuhurtziazko araudi-esparruak ezartzen duen errekerimendua, hau da, kide den estatu bakoitzaren lan eta kontratu eskubide orokorrei kalterik egin gabe, sortutako ordainsari aldagarriaren % 100 arte (zuhurtziazkoa) nabarmen murriztua geratzea erakundearen emaitzetan, kapital-

ratioetan edota aurretik aipatutako araudian aurreikusitako bestelako parametroetan joera negatibo bat apreziatuz gero. Egoera horietan, murrizketa edo “*malus*” klausularen bidez, likidazioaren mende geratzen diren ordainsari aldagarriko zenbatekoak murriztu daitezke, eta berreskuratze edo “*clawback*” klausularen bidez, ordaindutako zenbatekoak berreskuratuko lirатеke.

Aurreikuspen Sistemak.

Erakundearen barruan badaude ekarpen definituko gizarte aurreikuspen sistemak, erretiroa estaltzeaz gain, heriotza eta baliaezintasun arriskuak estaltzen dituztenak. Kasu horietarako prestazio osagarri batzuk definitu dira.

Ekarpen erregimena langileen % 99arentzako hitzarmen kolektibo batean definitu da, erregulartasun irizpideen arabera. KUTXABANKEKO gizarte aurreikuspeneko sistemak bateragarriak dira enpresa-estrategiarekin, epe luzerako helburu eta interesekin, eta kaudimen-maila ez da konprometituta geratzen.

Identifikatutako kolektiboaren zati handi batek sistema horiek partekatzen ditu gainerako langileekin, merkatuaren arabera dira eta. Horren barruan, gainera, beste sistema osagarri batzuk daude, berme osagarriekin, kasuren batean prestazio definitukoa. Oinarria beti da erretiro, heriotza edo baliaezintasun kasuetan estaldurak eman ahal izatea. Era berean, kasu horietan, ekarpen erregimena erregulartasun printzipioaren arabera da, eta merkatuko ohiko praktikekin bat dator.

Hala ere, sistema osagarri horiei dagokienez, eta banku erakundeetako administrari, zuzendari nagusi eta antzekoentzat, Espainiako Bankuaren 2/2016 zirkularrak hainbat irizpide barneratu ditu ekarpenen izaera zehazteko. Helburua da horien bolumena egokitzea eta horien ondoriozko *ex ante* eta *ex post* arrisku doikuntzetarako eskubidea izatea, ordainsariaren osagai aldagarriekin bezala.

Errekerimendu horien aplikazioan, KUTXABANK TALDEAK, araudi esparruan aurreikusitako proportzionaltasun printzipioaren mende, errekerimendu horri erantzuteko sistemak aplikatu ditu, eta egindako ekarpenen osagai aldagarria ordainsari aldagarriko aurretik azaldutako murrizketen mende jarri da, ordainsari mota horretarako arauan aurreikusitako berezitasun propioekin. Gutxienez, 5 urteko geroratze-epea.

Kargua uzteagatiko kalte-ordainak.

Identifikatutako kolektiboari eragiten dioten itunak ere ordainsari aldagarriari aplikatu ahal zaizkion murrizketen mende dago, EBA Zuzentzauek ordainsari politika egokiei buruz ezarritakoaren arabera, eta horietan jasotako proportzionaltasun printzipioa aplikatuz.